



# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 262. alea - 2021eko maiatza



**Aurten bai,  
badator  
Antzerki Astea**



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

*Calbeton*



**JATETXEA**

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)




**50 URTE**

**BURU - ZURI  
Taberna**

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**ASKETA, S.L.**

**ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA**

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**K21**  
KALITATEA  
Empresa Registrada Nº 21/05/049  
NIVEL 2



**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 262

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

**SALMENTA, ALOKAIRUAK, ABOKATUA**  
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA  
Tel: 943 19 22 63  
www.atarideba.com



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



# AURKIBIDEA

4

## GUTUNAK

“Debasket izan nahi duzu?”;  
“Aurrera pentsionistak!”



6

## ELKARRIZKETA

Rafael Bravo idazlea aurkeztu berri duen “La sombra del aire” lanaren harira



8

## ALBISTEA

Zazpi musika talderen zuzenekoak “Ekilarre” musika jaialdiaren baitan



10

## ANTZERKI ASTEA

Maiatzaren 21etik ekainaren 5era ospatuko da XXXIV. Antzerki Astea



16

## B. GAZTEA

Sexu-heziketaz eta nerabeen pribatutasunaz gazteen iritziak



## BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

## ARGITARATZAILEA



## LAGUNTZAILEAK



DEBAIKO UDALA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Erredakzioa:** Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Kamikaz Kolektiboa

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Alex Turrillas

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Lege gordailua:** SS-246-2009

**Inprimategia:** Euskalinpri

**ISSN 2171-7656**

## OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

zaindu maitatu dugun herri  
Zuhatza euskara elkarte

2021. urtean Zuhatza Euskara Elkarteak bere bazkide kopurua bikoizten ez badu desagertu egingo da.

egin zaitez **zuhatzakide!**  
[www.labur.eus/Zuhatza\\_EginBazkide](http://www.labur.eus/Zuhatza_EginBazkide)



**Berriketan**-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Debasket izan nahi duzu?



Atzo izan zela iruditu arren, irailaren 2an, Debasket Saskibalo Klubak lehen urratsak eman zituela bost urte izango dira. Bidea gorabeheratsua izan da, baina zorionez oraingoz onetik gehiago izan du txarretik baino. Aurtengoan lehen aldiz, adin tarte guztietako taldeak ateratzea lortu dugu, orain bi denboraldi Gipuzkoako 1. mailara igotzea lortu genuen eta aurrekoan mantendu...

Hasieran 25 jokalarik eta hiru entrenatzaile ginen, gehienak ez ziren inoiz lehiatu eta entrenatzaileetatik batek soilik zuen formakuntza. Gaur egun 80 jokalariz osatutako kluba dugu; aipatu bezala, Gipuzkoako Federazioak antola-

tzen dituen txapelketetako adin tarte guztietako taldeak ditugu eta bi Saski Eskola, bat Deban eta bestea Mendaron. Entrenatzaileak ere, egun, gehienak tituluak dira, kategoria bakoitzeko arduraduna bai behintzat. Hiru entrenatzaile oinarriko formakuntzarekin, bi lehen mailakoak, bat bigarren mailakoa eta azkenik bat estatu mailakoa.

Baina kluba ez da soilik jokalarik eta entrenatzaileetara mugatzen, boluntarioen talde-lan handia egon da atzetik: kartelak egin eta jarri dituztenak, epailearen laguntzaile aritutakoak, kamiseta eta txosnetako turnoetakoak...

Hala ere, proiektuak aurrera egin badu ere, proiektuaren etorkizuna ziurtatzeko jendea behar dugu. Oinarriak

ezarri dira, baina etorkizuneko erronkei (nesken taldeak sortzea, inbertsioak egiteko ekonomikoki indartzea, kirol-proiektua zehaztea...) aurre egiteko eta kluba indartzeko jendea behar dugu.

Lan handia egin dugu baina oraindik asko dago egiteko, eta bide horretarako zure laguntza behar dugu. Guztion artean lortuko dugu proiektu honen benetako fruituez gozatzea. Onena etortzeaz dago!

Edozein ekarpen egiteko edo zuzenean parte hartzeko, jarri kontaktuan klubarekin 621 01 93 83 zenbakiaren bitartez, edo [debasketsk@gmail.com](mailto:debasketsk@gmail.com) helbide elektronikoa baliatuta.

*Debasket Saskibalo Klubak*

## Aurrera pentsionistak!

Urtarrilaz geroztik, hilean bi astelehenetan, pentsionista talde bat Debako plazan elkartzen gara pentsio duinak aldarrikatzeko, Euskal Herriko beste hainbat eta hainbat herritan bezala.

Euskal Herriko langileen soldatzen batez bestekoa aintzat hartuta, Europako Gutun Sozialaren gomendioa jarraituz, Euskal Herrian gutxieneko pentsioak 1080 eurokoa beharko luke, baina pentsionisten erdia ez da 1000 eurora iristen, eta emakume alargunen kasuan, asko eta asko dira 500-700 euro kobratzen dutenak, pobrezia mugan, beraz. Gurea bezalako herrialde aurreratu batean, eskandalagarria iruditzen zaigu bizi osoa lanean eman duen jendeak, bere azken urteetan, bizitza duin bat izateko bezainbesteko pentsiorik ez izatea.

Orain, Toledoko Ituna berritzaera doazenean, pentsionistok adi egon beharko dugu murrizketa berriak etorri daitezkeelako. Adibidez, aurretik ere, pentsioa kalkulatzeko urte kopurua

15etik 25era luzatu zuten, eta horrek pentsioaren murrizketa ekarri zuen. Orain, 25etik 35era luzatu nahi duten zurrumurrua nahiko hedatua dago; horrela, aurrerantzean jubilatzaera doazenen pentsioa % 10 inguru murriztuko litzateke.

Argudiatzen dute Gizarte Segurantzaren diru-kutxak porrot egin dezakeela, baina hori ez da guztiz egia, zeren, alde batetik, kutxa horretatik beste partida batzuk ere ordaintzen baitira eta, bestalde, Estatuak badituelako baliabideak, behar izanez gero, pentsioak beste partida batzuetatik osatzeko, adibidez, aurrekontuetatik.

Eskatzen dugu Madrilek bere esku dagoen Gizarte Segurantzaren eskumena lehenbailehen Jaurlaritzaren esku uztea, horrela jasotzen baitu Autonomia Estatutuak. Gizarte Segurantzaren Madrilen eskuetan egonda ere, Jaurlaritzari exigitzen diogu pentsio txikiak osatu ditzala, 1080 eurora arte. Horretarako bitartekoak badaude,



behar dena, soilik, borondate politikoa da.

Hau guztia defendatzeko hilaren lehenengo eta hirugarren astelehenetan plazan biltzen jarraituko dugu. Era berean, parte hartuko dugu aldarrikapen hauek zabaltzeko egingo den txirritu-martxan (maiatzaren 27an helduko da herrira), eta baita maiatzaren 29an Euskal Herriko hiriburuetan burutuko diren manifestazioetan ere.

*Deba-Itziarko pentsiodunak taldea*

## Ramadan Mubarak

Debako 40 musulman baino gehiago deituak izan gara argi-orduetan barau egitera: Ramadana, gure erlijio musulmanaren bost oinarrietako bat, betetzera. Ramadana hilabete sakratua da, Muhammad profetak Koranaren lehen errebelazioa, Islamaren liburu sakratua, jaso zuen unearekin bat datorelako. Aldi honetan, musulmanok ezin dugu ez edan, ez jan egun argi den bitartean; ezin dugu sexu-harremanik izan. Fededunok uste dugu gure sakrifizioak aukera ematen digula Aláh gure Jainkoarengana hurbiltzeko.


Bekatuez damutzeko, ohitura txarretatik aldentzeko, erlijioari buruz hausnartzeko eta behartsuenen larruan jartzeko garaia ere bada, daukaguna ere baloratuz.

Ramadanean barau egitea derrigorezkoa da pubertaroa igaro duten musulman osasuntsu guztiontzat. Hala ere, oso proba fisiko eta psikologiko gogorra da, batez ere udan, eguzki-

ordu gehiago daudenean eta fededunok denbora luzeagoan egin behar dugunean barau. Hori dela eta, haurrek, zaharrek, gaixoek, hilekoa duten emakumeek, haurdun dauden edo bidaian dabilzanek ez dute jarraitu behar izaten. Baraurik betetzen ez den eguna urteko gainerako egunetan konpentsatu daiteke, jarraian edo berezita. Gaur egun, gainera, zientziak erakutsi du baraua gorputzarentzat ere oso ona dela.

### “Ramadanean jende askok egin nahi izaten du bere ekarpena, eta denon artean saiatu gara, ahal izan dugun neurrian, egoera ahulean dauden hainbat pertsonari laguntzen”

Ramadanaren lehen egunean, fededunok gosaria edo *suhoor*-a goizaldeko 5:20ean hartzen dugu, eguzkiaren lehen izpia agertu baino pixka bat lehenago. Ondoren, eguneko lehen otoitza egingo dugu, *fajr*-a. Baraualdia meskitan datilak jan eta ura edanez apurtzen dugu, gero otoitz egiten dugu, eta, ondoren, familia bakoitzak bere etxean afaltzen du. Afari horri *iftar* deitzen zaio.



**JAOUAD ABOURAKHA**  
PAKEA-DEBA elkarteko kidea

Ramadanean oso lanpetuta egoten ginen beste meskita batzuekin, lagunekin eta zenbait gizarte-erakunderekin koordinatzen, gutxienez *iftar* eta *suhoor* jatorduetarako etxerik gabe edo diru-sarrerarik gabe bizi diren pertsonak hornitzeko.

COVID-19aren pandemiagatik, aurreten eta iazkoan, debar guztiak bezala, jarduerak egiteko oso mugatuta egon gara beste urte batzuekin alderatuta. *Tarawih* errezoak 22:00etatik aurrera izaten dira.

PAKEA-DEBA elkarteko buru gisa, beste meskita batzuetako buruzagi batzuekin elkarlanean aritu gara; denok elkarrekin lurralde mailako ekimen solidarioak aurrera eramanez. Ramadanean jende askok egin nahi izaten du bere ekarpena, eta denon artean saiatu gara, ahal izan dugun neurrian, egoera ahulean dauden hainbat pertsonari laguntzen.

*Jaouad Abourakha*



**G**

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba

Informatika  
Tresneria  
informatikoa

**JLC**

Elektronika  
Osagai  
elektronikoak

**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)

**LAMARIANO**  
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52

## RAFAEL BRAVO: "Geugan bizi diren misterioak deszifratzeko magia ematen dit niri poesiak"

Gero eta gehiago entzuten dugu Rafael Bravo Arrizabalaga idazlearen izena, izan ere, ez ditu mordotxo bat lehiaketa alferrik irabaziak azken urteotan. "La sombra del aire" poema bildumak Iparragirre Saria ekarri zion iaz, baina COVID-19a dela medio aurkezpena atzeratu egin zen, eta aurtengo Liburuaren Egunaren bueltan aurkeztu berri du azkenean. Gainera, "Deba 100 hitzetan" lehiaketan ere saritu dute oraintsu.

"La sombra del aire" lanarekin irabazi zenuen Iparragirre Saria iaz. Zergatik izenburu hori? Nolako da, bada, airearen itzala?

Bi adiera izango zituen zerbaiten, espresioaren baten bila nenbilen: batetik, poesiaren esentzia giltzapetu ezina, bere arintasuna, eta bestetik, bizitzaren ezkutuko zentzua bilduko zituena; biak ala biak materia sotil, segur aski erreal, baina aldi berean zehazgaitz batek osatuak, balizko "airearen itzal" baten modura.

**Zer motatako liburua da? Nola deskribatuko zenuke?**

23 poemak osatzen dute, bi kapitulutan banaturik. Lehenengoak liburuaren izenburu bera du "La sombra del aire", eta barne-ezagutzaren bilaketa baten meneko poemek osatzen dute. Bigarrena, berriz, "Fuego amigo" da, eta bertan biltzen diren poemetan gustukoaren ditudan poetetako batzuekin solasaldi gisakoa eratzten saiatu naiz, besteak beste Heaney, Machado, Lowell, Stevens, Gamoneda eta Lorcarekin.

**Afizioa aurretik datorkizula aipatu izan duzu elkarrizketetan, baina jubilatutuz zinenetik poesiak leku berezia hartu du zure bizitzan, ezta?**


Poesia beti izan dut present, gertuko eta beharrezko zerbaiten gisara, bizi-desoreka lautzeko gai den kontrapisua balitz bezala. Eta bai, jubilatutuz nintzenetik, denbora gehiagorekin alde batetik, lan-loturetatik aske; gutxiagorekin beste aldetik (urteak hegan doaz), bere beharra premiazoago egin zait.

**Saritu zizuten lehenengo lana, "La casa apagada", Luis Rosales Granadako poetari eta bere "La casa encendida" lanari eginiko omenaldia da. Estimatu berezia diozu...**

"La casa apagada"-rekin Lasarte Hiria saria eskuratu nuen, eta, halaxe da, Luis Rosalesen "La casa encendida"-ri egindako omenaldi umila zen, bai, hainbeste aldiz barruan hartu nauen eta bertaritzen jarraitzea pentsatzen dudana eraikin poetiko sendo horri.

**Literatur lehiaketa asko ari zara irabazten azken urteotan. Esango zenuke eboluzio bat bizi izan duela zure poesiak?**

Sariak banaka batzuk izan dira, bai, eta baliteke nire poe-



siak eboluzionatu izana; baina, batez ere, irudipena dut ahots poetikoa seguruago eta sosegatuagoa suertatzen den lekura iritsia naizela.

**Zer esango zenuke eman dizula, ematen dizula poesiak?**

Geugan bizi diren eta gure zati diren misterioak deszifratzeko, eta nolabait ulertzeko, guztiok behar dugun magia ematen dit niri poesiak; arrazoiak, berak bakarrik, hara iristen lortzen ez duenez.

**Eta, hala bada, zer ekarri egiten dio gizarteari?**

"Poesia etorkizunez betetako arma da" esan zuen poetak gehiegizko baikortasunaren bekatua egin zezakeen. Norbanakoon langak eta desberdintasun sozialak ezabatzeko gai den komunikazio maila desberdin, unibertsal sortzeko balio izatea nahi nuke; sentimendu eta emozioz eginko hizkuntza inmaterial bat sortzeko.

**Zer darabilzu egun esku artean, edo zer asmo dituzu?**

Poesia niretzat eguneroko jarduera ezinbestekoa da, bizirauteko ariketa, oinarrizko eta nahitaezko ikasketa. Uste dut Borgesek esan zuela inspirazioak bisita egiten dizun egunean lanean aurkitu behar zaituela. Horixe da nik egiten dudana, lan egin; orain, adibidez, poema bilduma berri bati forma ematen saiatuz.

**Salgai al dago aurkeztu berri duzun liburua? Non?**

Birmingham argitaletxeak banatzen du liburua eta Donostiako liburu-denda batzuetan dago salgai. Deban ere egon zen salgai, baina agortu egin zen. Edozelan ere, neuk baditut ale batzuk inork interesik balu.

## Sari guztiak Deban geratu dira aurtengo Deba 100 hitzetan lehiaketan

Debako Udalak eta Cardenas Fundazioak antolatutako "Deba 100 hitzetan" literatur lehiaketara 19 lan aurkeztu dira guztira euskarazko eta gaztelaniazko modalitateetan, eta bietan ere Debako idazleak izan dira aurtengoan garaile.

Euskarazko modalitatean, Nagore Dorronsoro Aizpuruaren "Prepeziozko bizitzak" izenburuko kontakizuna gailendu da denen artean. Debako lanik onenaren saria, berriz, Arantza Iriondo Lakak jaso du "Aldats-goiko aska" idazlanari esker. Estibaliz Beltran de Herediak, Mikel Aizpuruak eta Goizane Aizpuruak osatu dute epaimahaia.

Gaztelaniazko modalitatean, oster, Rafael Bravo Arrizabalagak eskuratu ditu bi sariak. Sari nagusia "Misericordia" lanak merezi izan du; debarrik onenarena, berriz, "A bordo del

azar" izenburuko idazlanak, Jesus Maria Etxezarretak, Ainara Sedanok eta Alex Turrillasek osatutako epaimahaiaren ustez.

Hamahiru lan aurkeztu dituzte euskaraz eta sei gaztelaniaz. Urteroko parte hartzea berdindu da euskaraz, baina asko jaitsi gaztelaniaz, epaimahaiko kideek jakinarazi dutenez.

Seigarren edizioa izan du aurtengoa "Deba 100 hitzetan" lehiaketak. Deba izan da gaia, orokorrean, eta ohiko moduan gehienez 100 hitz erabili ahal izan dituzte parte hartzaileek beren kontakizunak sortzeko. 350 euroko sariak izan dira guztiak.

Sariak apirilaren 22an banatu zituzten Kultur Elkartearen, Liburuaren Egunaren bueltako egitarauaren barruan. Lan irabazleen irakurraldien artean esku-soinua joz girotu zuten sari-banaketa Musika Eskolako soinujoek.



### Prepeziozko bizitzak

*70ak paseak, baina atzoko kontuak baino hobeto oroitzen ditut umetakoak, elizari lotutakoak bereziki. Laguntzaile nintzen, zer behar horretarako neska: ostiak egin, sakristiako filmei erronboak jarri... Zorutzen film haiekin! Edonork zekien, ordea, Miramarko zinemakoak zirela "interesgarrienak".*

*Behin, aita eta kuadrillari, tentazioaren ateraino lagundu nien. Lagunetako batek, nire begitarte goibelaz jabetuta, keinu egin eta gabana barruan, ezkutuan pasa ninduen; ikasitakoak ez ditut egundaino ahaztu!*

*Iluntzean, amari galdetu nion zergatik zihoazen gizonezkoak soilik Miramarrera. Begiak sutan bota zidan prepeziozko gizasemeen jokabidea ez zela eta lelokeriarik ez galdetzeko.*

*Ohean, deliberatu nuen nahiago nuela mila bider prepeziorik gabeko jendearen bizitza, gizon izan beharko banuen ere.*

Nagore Dorronsoro

### Aldats-goiko aska

*Urte guztian egoten zinen urez beteta eta zure paretak goroldioz estalita. Baina eguraldi ona iristek zuri bisita egiteko egunak bertan zirela adierazten zigun. Eskolatik irten eta gero joaten ginen ezkututzen zenituen altxorak ikustera, naturak eskaintzen zizkigunak mirestera. Zenbat zapa-buru zenituen ikustera; nola egunak aurrera joan ahala, buztanak txikitu eta hankak ateratzen zitzaizkien igel txiki bihurtu arte; nola egiten zuten salto; nola egiten ziguten ihes haiek harrapatzen saiatzen ginenean.*

*Urteak dira desagertu zinela, hala ere, gaur egun Aldats pilotalekuan emanaldiren bat dagoenean, haren parte balitz bezala entzuten dugu haurtzarora eramaten gaituen zure ur hotsa.*

Arantza Iriondo

iritzia

### Binilo arrosa hori

Binilo arrosa hori lortu nahi nuke, bi esku marraztuta dituen, Mary Lou Williams-en "Mary Lou Williams". Bada, nahiz eta disko hori sarritan entzun dudana Spotify-en, fisikoki nire eskuen artean eduki nahi dut, eta altxor bat bezala zaindu eta gorde.

Gomendio batekin nator oraingoan irakurle kuttuna. Hirurogeiko hamarkadako jazz espiritualaren erakusle handienetakoa, emakume beltz batek sortu eta ekoiztua. Williams-en min eta beldurak nabaritu daitezke disko osoan zehar, kristautasunean aurkitutako esperantzarekin nahasturik. Elegantziaz jositako koral batekin hasten da diskoa, konplexua eta iluna, oso liturgikoa, Saint Martin des Porres. Musika erlijiosoak behar

zuen modernitate eta sofistikazioa erakusten du pieza honekin, baina nondik zetorren ahaztu gabe; halaber, lehenengo emakume beltza izan zen "jazz meza" idazten.

Emakumea, beltza eta txiroa izatea oso garesti ordaintzen zen XX. mende hasierako Estatu Batuetan. Hala eta guztiz ere, hegoaldeko esklabu askeen alaba izatetik jazzaren historia lehenengo pertsona bizi ahal izatera iritsi zen, eta handien irakasle bilakatu. Garaiko musikariek zioten Mary Lou Williams swing idazle handienetakoa izan zela, Duke Ellingtonen edota Benny Goodmanen tamainakoa; zoritxarrez, ez dugu jazzaren historia kontatzen duten liburuen artean hain erraz aurkituko. Zer sorpresa, ezta?



MAIALEN  
TELLABIDE

## Ekaineko lau asteburuetan zazpi musika talderen zuzeneko gozatzeko aukera eskainiko du Ekilarre musika jaialdiak



Ekainaren 6an hasi eta 25era arte, hileko lau asteburuetan zazpi musika talderen musikaz gozatzeko aukera eskainiko du Ekilarre musika jaialdiak. Herriko hainbat musikari eta musikazalek osatzen duen Negudak-Ekilarre kolektiboak antolatu du jaialdia Debako Udalaren laguntzarekin; laguntzaile izan ditu, era berean, Debako Gazte Asanblada, Zuhatza Euskara Elkarte, Zurrumbilo, Sutan Grafik, Ipar Surf & Skate eskola eta Yako surf eskola.

Zumardiko karpan izango dira kontzertuak. Kontzertu bakoitzerako sarrerak 12 euroko salneurria izango du eta zumardiko kioskoan egongo dira salgai maiatzaren 20 eta 21ean.

Sarrera mugatua izango da eta COVID-19aren segurtasun neurriak bermatuko dira.

Egitarauari dagokionez, anitza izango da: ekainaren 6an (igandea) 17:00etan Gozategi izango da formatu akustikoan; ekainaren 12an (larunbata), 19:00etan Skabidean eta Debrass Band taldeak; ekainaren 19an (larunbata) 18:30ean Brigade Loco eta No Limits; eta, jaialdiarekin amaitzeko, ekainaren 25ean (ostirala), 18:30ean Unidad Alavesa eta Azken Sustraiak taldeak, azken hori formatu akustikoan.

### Erreseina: jaialdiko protagonistak

**-GOZATEGI:** 90eko hamarkadaz geroztik Euskal Herriko jai guztiak alaitu dituen taldea dugu. Proposamen akustiko berria aurkeztera dator, hirukote formatuan, trikيتدoinu alai eta dantzagarriekin bere disko-grafia zabalaren errepasoa egitera.

**-SKABIDEAN:** Egungo musika eszenako punta-puntako taldea dugu. Skareggaie-Rocksteady-Soul doinuen erritmoan 60ko hamarkadako Jamaikara bidaiatzeko aukera izango dute ikusleek.


**-DEBRASS BAND:** New Orleanseko *brass band*-en ereduari jarraiki, jazz-funk doinu garaikideen bidez kaleak girotzen eskarmentua duen Debako Musika Bandako harrobitik aterako talde gaztea.

**-BRIGADE LOCO:** Ahots gordin eta melodikoen eta gitarra punteo zorrotzen bidez punk-rock eszenatik haratago hedatzea lortu duen boskotea. Jada mitiko bihurtu diren abestien bidez ikusleak kantuan jartzera datoz.

**-NO LIMITS:** Barduliako Punk-Oi! doinu klasikoaren bidez karpa hankaz gora jartzeko gogo biziz dagoen Bergarako talde gaztea.

**-UNIDAD ALAVESA:** Esperientzia handiko musikariz osatutako folk-rock taldea dugu. Bizitzaren argi-ilunei buruzko hitz sakonen eta doinu akustikoen bidez Goierriko landa eremuko taberna giroan murgilduko gara.

**-AZKEN SUSTRAIAK:** Egungo punk-rock eszenako erreferenteetako bat. Bere kantutegia doinu akustikoetara moldatu duen arren, talde honen zuzenekoetako indarra ez da apaldu.



## iritzia



**ANTTON  
AIZPURUA**

Esango didazue ez dela baloiarekin jolasteko leku egokia, badirela horretarako toki aproposagoak eta bla bla bla... Berdin zait, guk orduak ematen genituen plazako alde banatoko bi partak porteriak bailiran futboleko jolasten. Hamaika aldiz katigatu zitzaizkigun baloiak goiko leihotako hesietan eta hamabi aldiz entzun genituen inguruko mahaietako bezeroen errietak. Horiek ere berdin zitzaizkigun, jolasean jarraitzen genuen.

Orain ezin da halako partidari egin, Udalak pare bat banku jarri dituelako pare-parean helduen mesedetan eta umeentzako traban. Izan ere, kaleak eta plazak banatzaileen kamioientzat, errekadutan dabilzanen kotxeentzat edo kafea lasai hartu nahi dutenentzat dira: helduentzat.

### Norenak dira kaleak?

Ez nuke tabernarien aurka egin nahi, gutxiago garaiotan, baina umeek jolasteko haina ez den plaza zati bat geratu zaigu euren terrazetan barrera eta beldur naiz, hauetako egunen batean, ez ote dugun mahairik mahai saltoka aritu beharko plazaren alde batetik bestera joateko. Beldur naiz ez dakidalako pandemian garen bitartean distantzien neurriak bermatzeko terrazentzat kendu dizkiguten espazioak inoiz berriro itzuliko dizkiguten.

Gainera, umei espazioak kentzen dizkiegunean, euren liskarrak eta barreak aldamenetik botatzen ditugunean, helduen zaratak nagusitzen dira: garabien edo taladroen zaratak, piztutako motor edo bozinen zaratak... Eta horiek edo umerik gabeko isiltasun erabatekoak berdin mintzen dituzte belarriak.



## Naturarekin bat eginik dator Osasun Haziak Taldearen bigarren zikloa



D e b a k o  
Osasun Haziak  
Taldeak “Osa-  
sunaren beste  
begirada bat II.

Elkartuko gera?” lemapean hainbat hitzal-  
di eta tailerrez osatutako bigarren ziklo  
bat antolatuko du ekainerako, oraingoan  
saio praktikoak nagusituko direlarik.

Urtarrila eta otsaila bitartean izan zen  
zikloak jasotako erantzunarekin “oso  
pozik” agertu zen taldea. Hori horrela,  
bigarren zikloan aurrekoan ikasitakoak  
praktikan jartzeko aukerak eskaintzea  
dute helburu. “Norbere osasunaren  
kudeaketa aktiboaz eta inguruko zain-  
taz gain bizipozak ere osasunean duen  
garrantzia aitortzea beharrezkoa da, eta  
haren apologia egitera gatoz; horregatik,  
eta izaki sozialak garelako egiten dugu  
naturan elkartzeko deia”, adierazi dio  
taldeak **Berriketan**-i.

Taldeakideen esanetan, osatzen gaituz-  
ten alderdien (fisiko, emozional, mental  
eta espirituala) oreka lortzeko bitartekoak  
jasotzen ditu zikloak.

Datorren ekainaren 10ean (osteguna)


19:00etan, Juanjo Martinezek “*Reflexiones  
en torno al COVID-19*” hitzaldia emango  
du zumardian.

Ekainaren 17an (osteguna) 19:00etan,  
“*Death Cafe: bizitzaren parte den heriotzaz  
mintzatzeko*” saioa izango da Amaia  
Gozategirekin Itziarko Burugorriin.

Solstizioarekin batera, ekainaren  
21ean (astelehena), 19:00etan, “*Dantza  
librea, gorputza askatzen II*” tailerra izango  
da Uxue Pascualen eskutik eta, jarraian,  
*Danse encore* sonatuaren euskarazko ber-  
tsioa kantatzeko eta dantzatzeko aukera  
izango da, hondartzan.

Ekainaren 24an (osteguna) 19:00etan,  
Isabel Morenok “*Que el alimento sea tu  
medicina*” hitzaldia emango du zumar-  
dian. Uztailearen 4an (igandea) 11:00etan,  
“*Arbasoen jakintza berreskuratzen*” txango  
gidatua izango da Lasturren Maite  
Camposekin, sendabelarrak ezagutzeko  
aukera eskainiz. Eta, zikloa itxiz,  
Morenoren hitzaldia alde praktikoarekin  
osatzeko, uztailearen 8an (osteguna)  
18:00etan, Nerea Arrizabalagak barazki  
hartzituaren tailerra eskainiko du zumar-  
dian.

## Alarma egoera bertan behera gelditu ostean indarrean dauden neurri nagusiak



Eusko Jaurlaritzaren  
azken dekretuko hainbat  
neurri bertan behera  
uzten zituen ebazpena  
eman zuen EAEko Auzitegi Nagusiak  
maiatzaren 7an, eta erabaki horri helegi-  
terik ez jartzea erabaki zuen Iñigo  
Urkullu buru duen gobernuak. Hortaz,  
alarma egoera bukatu ostean EAEn zein  
neurri ezarriko zituzten iragarri zuen  
lehendakariak hilaren 7an bertan,  
Labiren bileraren ondoren.

Hauek dira uneotan indarrean dau-  
den neurri nagusietako batzuk:

-Bertan behera geratu dira itxiera peri-  
metralak eta “etxeratze agindua”. Gaueko  
mugikortasuna 23:00etatik 06:00etara  
automugatzeko gomendatzen dute.

-Bertan behera geratu dira pertsonak  
elkartzeko muga, ostalaritzan eta kirole-  
an izan ezik. Hala ere, lau pertsona

baino gehiagoren bilkurak saihestea  
gomendatzen da.

-22:00etan, establezimenduak itxia  
eta kultura-, gizarte- eta merkaritza-jar-  
duerak etetea agindu dute.

-Elkarte gastronomikoak, lonjak eta  
antzekoak itxita daude, baita gaueko  
aisialdirako establezimenduak eta loka-  
lak ere. Ostalaritza eta merkataritza  
22:00ak arte egon ahal da zabalik; barne-  
ko edukiera % 50era mugatuta dago, eta  
debekatuta dago barran edo zutik kon-  
sumitzea. Mahai bakoitzean, gehienez  
lau pertsona eseri daitezke eta nahitaez-  
koa da maskara erabiltzea, irensteko  
unean izan ezik.

Kultu-lekuetan % 35eko edukiera  
baimentzen da, eta % 50ekoa kirol-insta-  
lazioetan -aldageletan % 35-. Kirola egi-  
teko, gehienez sei lagun bildu daitezke  
aire zabalean edo barnealdean.



ALAZNE TXURRUKA

### Ikurrina

Ikurrina gustuko dut. Dituen kolore-  
ak gustatzen zaizkit, alai iruditzen zait,  
eta geurea baino ez da, euskaldunona.  
Nortasunaren adierazle, herri izatearen  
ikur, beste herrietatik desberdintzen  
gaitu eta geure artean berdintzen gaitu,  
izan ditzakegun diferentziak lautuz.

Ume ginela, zenbat ikurrin marrazten  
genuen! Ez zegoen ikurrinik gabeko mar-  
razkirik. Itsasontziek ikurrina zeramaten,  
etxeko teilatuaren puntan ere ikurrina  
ondo gelditzen zen, eta zer esanik ez orri  
zuri-zuria ikurrin bihurtzen genuen!

Geurea zela irakatsi ziguten, eta  
maite genuen. Askotan marrazten  
genuen arren, etxe barruan mantendu  
beharreko marrazkiak zirela bagenekien.  
Beldurra ere behin baino gehiagotan sen-  
titu genuen zintzilik ikustean. Igande  
batean mezatara gindoazela, Guardia  
Zibila elizako kanpandorrean zintzilika-  
tutako ikurrinari tiroz ari zitzaion; eta  
San Rokeen hasierako egun batean, abuz-  
tuaren 14an, danborradako orduan, pla-  
zan, norbaitek ikurrina atera zuen jende  
arte. Nire belaunek oraindik ere dar-  
dar egiten dute hura oroitzean.

Beranduago etorriko zen ikurrina  
legeztatu zuten eguna. Egun benetan  
pozgarria! Zenbat ikurrin ez ote zituzten  
saldu Arriola dendan! Eta zenbat ez ote  
genituen zintzilikatu etxeetako leiho eta  
balkoietan!

Legezkoa bihurtu zen, edozein leku-  
tan atera daiteke, baina gutxitan ikusten  
dugu gure etxeetan.

Ez da denbora asko Aberri Eguna izan  
dela. Egun berezia da abertzale garenon-  
tzat eta beti gustatu izan zait etxeko leiho  
eta balkoietan ikurrina ikustea. Aurten,  
beste urte batzuetan baino gehiago ikusi  
ditudala iruditzen zait. Datorren urtean ere  
nahiko nuke gure herrian ikurrina ikusi!

Urtebeteko atsedean behartuaren ondoren, indarberrituta itzuli gara. Bai, akaso baliteke gogoan ez izatea, baina iaz ez genuen gure herria antzerkiz ziprztindu. Egoera berrira egokitzea beste aukerarik geratzen ez zaigun honetan, hala ere, ezin herria urtero mimo handiz antolatzen genuen Antzerki Asterik gabe utzi.

Birus alu batek ez du gure antzerki-gosea etengo, gure kultura kontsumitzen jarraitu nahi dugu; antzokiak betez (kontzertuez, antzerkiez.... disfrutatuz). Badakigu-eta zinez leku seguruak direla!

**Aurtengo honetan, XXXIV. zenbakira iritsi gara.** 33 Antzerki Aste paseak dira dagoeneko, eta 34.a ate-joka daukagu. Irrikaz, irribarre bihurri bat marraztuz sumatzen dugu ate-izkinatik begira. Uzta oparoarekin dator, gainera; antzerkia, kale-antzerkia, Goazek aurkeztuko duen lantxoren bat tarteko. Ez dago aspertzeko astirik!

Hori bai, aurten, hartu beharreko neurri zorrotzak direla eta, ez

da haurren ikuskizunik izango. Espero dugu, datorren urteari begira, herritar guztiongana iristeko aukera izatea. Bitartean, horri aurre egiteko, kale-antzerki eder askoak izango ditugu ikusgai, *Trapu Zaharra* zein *Trotamundos* taldeen eskutik.

Esan beharra dago Itziarrera ere iritsiko dela aurten ere Antzerki Astea. Bi emanaldi izango ditu Burugorri Etxean; bata "35-huts" *Esti Curiel*ek gorpuztua eta bestea *GOAZ Taldeak* eskainiko duena Antzerki Asteari amaiera emateko.

Horretaz guztiaz gain, ez pentsa ahaztuta gaudenik! Aldats pilotalekuan ere hainbat ikuskizun ikusteko aukera izango dugu, hala nola "Panpina" *Erika Olaizolarena*, "Antroan intro" *Orratx Antzerki Taldearena*, edo "Konpromisoa" *Txalo Produkzioak*-ena.

Uste dugu denok antzerki-gosea asetzeko adinako egitarau ederrarekin datorkigula Antzerki Astea! On egin dagigun!




**Aurtengo Antzerki Asteak ere zintzo jo digu aldaba egitaraua bete-betea botaiozu begirada Pandemiaren garai honetan egin nahi degu propaganda nagusi, heldu, haur eta gazte entzun ezazute hau hara! neurriak zintzo bete ezkerokultura segurua da.**

**Lorailaren 21ean da hasiera eguna bai Deban eta bai Itziarren polita antzerki jarduna taula gainean baita kalean izango da gaitasuna antzerkigintza ezagutzeko hurbildu zaitez laguna ea horrela bermatzen dugun GOAZ-en etorkizuna**



**Maiatzak 21, ostirala:**




**Aldats pilotalekuan, 20:30ean. Sarrera: 6 euro.**

**"PANPINA" Kamikaz kolektiboa Donostia**

Antzezlan honetan gai sakonak topatuko ditu ikusleak, umorea eta performance kutsuko aktore-lan fisikoaz lagunduta: noiz bilakatzen da norbera panpin eguneroko bizitzan? Zer pasatzen da panpin baten burutik? Noiz behar dugu begiratu gaitzaten, eta zergatik? Emakume oro da panpina? Besteen begiradak egiten gaitu panpin?

**Maiatzak 22, larunbata:**




**Aldats pilotalekuan, 20:30ean. Sarrera: 5 euro.**

**"ANTROAN INTRO" (Estreinaldia) Orratx Antzerki Taldea Lezo**

Jakin badakigu ez gaudela betiko, eta mundua bera ere ez; izan ere, guztia, noizbait, betiko desagertu egingo da, baina une hori ez dakigu norbaitek ikusi ahal izango duen. Izaki mikroskopiko bat gai izan da, mundu osoa kaiola batean sartzeko. Eta hortxe gaude, beldurtuta, nazkatuta, akituta... noiz aterako zain.

**Maiatzak 23, igandea:**



**Itziariko Burugorri aretoan, 18:00etan Sarrera: 3 euro.**

**"35 HUTS" Esti Curiel Zumaia**

Bakarrizketa, umorea, rantxerak eta irratinobela mexikar bat. 35 urte beteko ditu Asunek eta kaka eginda dago bere familian dagoen maldizio baten erruz. Horri aurre egiteko erantzun bila dabil, amona Salvadora du bizirik eta bere laguntza behar du, baina hark lagundu ordez gehiago nahasten du, irratinobelak xurgatu baitu amona. Asunen bizitza zoro hau aitzakia hartuta gai ezberdinez hitz egiten saiatu gara.

# Badator

## XXXIV. Antzerki Astea

**Maiatzaren 21etik ekainaren 5era ospatuko da  
GOAZ Antzerki Taldearen eskutik**

Maiatzak 28, ostirala:



**Kale Antzerkia**  
(Arakistain plazan),  
19:00etan.

**"MESEDE BAT  
EGITEARREN"**  
*Trapu Zaharra*  
Donostia

Hautagai batek kanpaina hasi baino hamabost egun lehenago beldur eszeniko agerraldi bat jasaten du. Bere alderdia "coach" batekin harremanetan jartzen da bere onera ekartzen saiatzeko. Honela bada, ikusleok mitin bat simulatuko duen saio terapeutiko batean parte hartuko dugu.

Maiatzak 29, larunbata:



**Aldats pilotalekuan,**  
20:30ean.  
Sarrera: 6 euro.

**"KONPROMISOA"**  
*Txalo Produksioak*  
Donostia

Tomas eta German aspaldi-ko lagunak dira; Tomas sasi-autore bat da eta German, bere lanbidean arrakasta handirik gabeko aktorea. Germanek arazo ekonomikoak dauzka eta bere apartamendua saldu beharra du, bai ala bai. Pisua erosi nahi duen batekin tratua egiteko geratu da eta Tomasi laguntza eskatu dio...

Maiatzak 30, igandea:



**Kale Antzerkia**  
(Aldats pilotalekuan),  
12:30ean.

**"KUTXA BATEN  
ISTORIOAK"**  
*Trotamundos*  
konpainia. Donostia

"Historias de un baúl" Fidel eta Capulitaren istorioa da. Bi pertsonaia maitagarri, bidaiariak, zirku-zaleak, ameslariak eta kideak; kutxa zahar bat lepoan hartuta doazenak hortik zehar. Ikuslego berri bila dabilta, horiek dibertitu eta ezustekoak emateko, betiere topaketaren une handirako prest eta prestu.

Ekainak 4, ostirala  
eta ekainak 5, larunbata



**Ekainaren 4an, Deban**  
Agirre jauregiko  
Ispiluen gelan,  
18:30 / 19:00 / 19:30 / 20:00.  
Sarrera: 3 euro.

**Ekainaren 5ean,**  
Itziarren, Burugorri  
Etxean, 18:00 / 18:30

**"BADATOR"**  
*GOAZ Antzerki Taldea*  
Deba

Badator. Gutxi falta da. Baina zer dator? Ez gaude ziur. Gu badaezpada ere prestatu egingo gara. Hasi da atzera kontaketa.

Sarrerak hartzeko:  
692 706 004 edo  
goazantzerkitaldea@gmail.com

Deba-Itziar

# BIRA



## APIRILEKO BIRA | SARIDUNAK



**Beliosoro-Bekoa baserriko  
60 euroko haragi sorta**

Mattin Urbietta  
Oier Iriondo  
Eñaut Berasaluze



**Beliosoro-Bekoa baserriko  
60 euroko haragi sorta**

Julen Duñabeitia  
Eneritz Tambo

\*Produktuak 2021/06/15 baino lehen jaso beharko dira, turismo bulegoan

## MAIATZEKO BIRA:



**1. Zein da Berlinale Talents topaketan hautatua izan den zinemagile debarra?**



**2. Zein da ezkerreko argazkian agertzen den mendia?**

A) Salsamendi  
B) Birular  
D) Arbil  
E) Agiro



**3. Espainiako zenbat liga irabazi ditu Deban bizi den Toncho Nava saskibaloijokalaria ohiak?**



**4. Zein ezizenez zen ezaguna Faustino Azpiazu trikitilaria?**

A) Madarixa txikia D) Auntxa  
B) Sakabi E) Egañazpi



**5. Zeintzuk dira Debako euskararen historia soziala ikerketa lanaren egileak?**



**6. Non dago ezkerreko argazkiko zuhaitza?**

A) Zumaia-Deba ibilbidean  
B) Ailtola gain inguruan  
D) Itziarko industrialdean  
E) Arbilan

## PARTE HARTZEKO:

[www.labur.eus/BIRA\\_maiatza](http://www.labur.eus/BIRA_maiatza)

Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean

Parte hartzaile guztien artean

Katxalote arropa markako produktuetan gastatzeko  
**40 euroko bost bono**  
banatuko dira

Katxalote arropa markako  
**10 euroan baloratutako**  
**telazko hamar poltsa**  
banatuko dira

**Erantzunak bidaltzeko azken eguna: ekainaren 7a**

Irabazleen izenak ekaineko *Berriketan*-en argitaratuko dira. **Animatu!**



# Debarrak munduan

## KOLDO AGUIRRE DAVILA

Egun 72 urte dituen arren, oso gaztetatik bizi da Koldo Aguirre Davila Alemanian. Madrilen Filosofia eta Letretan lizentziatu zen artearen adarrean eta gero, Alemaniako Münster unibertsitatean Artearen Pedagogia ikasketa gehigarriak egin zituen. Ordutik, Alemaniako institutu batean irakasle aritu da Arte eta Gaztelaniako eskolak ematen, jubilatuta den arte.

### Non bizi zara? Zergatik?

Alemaniako Ipar Renaniako hiri txiki batean. Alemaniara hainbatetan hurbildu nintzen ikasle nintzela, oporretan. Jendea ezagutu eta harremana estutzeak alemaniera ikasi eta bertako kultura eta bizimodua ezagutzera bultzatu ninduen!

### Zerk eraman zintuen horra?

Arrazoi pertsonalek. Diktadura garaian Madrilan ikasita, beste giro bat ezagutu beharra nuen. Alemanian maitemindu eta aukera izan nuen ikasteko, lan egiteko eta familia sortzeko.

### Nolako da zure eguneroko bizitza?

Lasaia jubilatuta nintzenetik; orain mugituagoa bi bilobak jaio zirenetik. Beti aktibo nago pinturarekiko dudan pasioagatik, beti aire zabalean. Askok gozaten dut familiarekin, lorategian, sukaldean edo bidaiatzen (ahal denean...).

### Espero zenuen bezalakoa da Alemania?

Iritsi nintzenez oso gaztea nintzen; jende deigarria, kale isilak eta, uda izanik, mundu guztia praka motzetan. Gero, gizarte



superindustrializatu eta anitzaren kontraste eta gatazkak ere ikusi ditut. Bestalde, "atzerritar" sentimendua aldatuz joan da hizkuntza ikasi eta jendea ezagutzeko.

### Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Ia batere, zirkunstantziengatik. Baina batzuetan, senideren batekin telefonoz hitz egitean, edo seme-alabek "aita" deitzean, maitasun eta oroitzapenez beterik iristen zaizkit hitzok.

### Bertako hizkuntzarik badago hor? Hizkuntza txikirik?

Landa eremuan "Platt" hitz egiten da, nekazarien dialekto bat, eta eskualde bakoitzak bere nabardurak ditu, beste eskualdeetan erraz ulertzen ez direnak.

### Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Debako inguru ederra da, baina "parajeak" ezin dira ekarri. Familiaren kontaktuaren sentipena (hain eskuzabal eta maitagarria) ekarriko nuke. Oso gustura pentsatzen dut, baita ere, Deban ume nintzela askotan gozatu izan dudana bizimodu alai eta axolagabeaz.

Alemania txapelduna da produktuak esportatzen, baina mendekotasunak sortzen dituen mundu global honetan nik garrantzi handia ematen diot ondo prestatzeko aukerak garatzeari.

### Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Ez. Emaztea, seme-alabak eta bilobak ditut, eta bizitza egina dut hemen. Gainera beti dago leku batetik bestera bidaiatzea (orain ezin den arren) eta Deba bisitatzea oso gustuko dut.



## Laburrean:

**Paisaia bat:** Euskal kostaldea hegazkin batetik ikusita

**Usain bat:** Itsasoarena, haize freskoarena, eta Getariako kaleetako ere bai, erretegi-usainarekin...

**Zapore edo jaki bat:** Debako erriberako lekak, itsasoko arrain freskoa eta txistorra frijitua

**Gustuko ditut...** Giza fantasiaren aniztasuna eta Debako topale-

ku irekiak (udaletzeko plaza, tabernak...)

**Ez dut gustuko...** Debak kostaldeko herri atsegina eta irekia izateari uztea (ez balitzaie irtenbide onik aurkituko egun dituen trafiko, etxebizitza, turismo, lan... arazoei). Zubia laster konpontzea espero dut

**Amets bat:** Bigarren bizitza bat, mundu justuago eta ekologikoago batean

## Zuhatza elkarteak presente Debarren Eguneko asteburuan

Debarren Egunearen bueltan antolatutako egitarauan presente egon da aurten ere Zuhatza Euskara Elkarteak. Hilaren 14an, adibidez, Kolore Anitz Aisialdi Taldeak "Begirale galduen bila" jolasarekin alaitu zituen kaleak arratsaldean. Larunbatean, berriz, goizean eta arratsaldean postua jarri zuen Zuhatzak, mariskada eder baterako errifak eta elkartearen materiala (kamisetak, maskarak, poltsak eta Kolore Anitzen bisera) saltzeko eta bazkide berriak egiteko.

Aldats pilotalekuan Talka taldearen eta lagunen ekitaldia izan zen larunbat arratsaldean eta bertan egin zen mariskadaren zozketa. Saritua suertatu zen zenbakia 5.395 izan zen, eta biharamunean agertu zen errifa sarituaren jabea: Elene Lete Basauri.

### 170 hurrek eman dute izena udalekuetan

Kolorez Blai euskal udalekuetarako izen-ematea maiatzaren 3tik 14ra egon zen zabalik. 170 umek eman zuten izena bitarte horretan; hala ere, behin-behineko onartuen zerrenda maiatzaren 28an jakinaraziko da eta gainontzekoei dirua itzuliko zaie. Udalekuetako lehen txanda uztailearen 5etik 16ra artekoa izango da eta HH5 (2015) eta LH 1 eta LH 2koek (2014-2013) hartuko dute parte. Bigarren txanda, berriz, uztailearen 19tik 30erakoa eta bertan LH 3, LH 4, LH 5, eta LH 6koek (2012-2011-2010-2009). Astelehenetik ostiralera egingo dira udalekuak, 9:30etik 13:00etara.



## Errigorako produktuen berrogei bat eskaera banatu dira



Gabonetako saskien kanpainaren ostean, bigarren aldiz izan da Deban aukera Errigorako produktuak eskuratzeko. Zuhatzak bazkideen artean egindako deialdiari erantzunez, 37 lagunek egin dituzte oraingo honetan produktu sorta

desberdinen eskaerak. Denetarik egon da, hasi olio birjina mota desberdinetatik eta kalitatezko kontserbetara; gainera, sorta denetan izan da aukera produktua ekologikoan eskatzeko ere. Ekainaren 4an banatu ziren sorta guztiak Aldats pilotalekuko biltegian.



# EUSKERAZ BAGERA!

## ZERGATIK ZARA ZUHATZA EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDE?



### MAITANE AROSTEGI

27 urte

Zuhatza sortu zenetik naiz bazkide, gurasoek apuntatu ninduten eta txikitik gogoratzen dut *Berriketan* etxean. Oso garrantzitsua iruditzen zait elkarteak egiten duen lana, euskararen erabilera bultzatzen duelako gure herriko berriez euskaraz informatuz eta herritarrok idatzitako testuak zabalduz. Gainera, ezin ahaztu hain gustuko dugun Euskal Jaia eta beste hainbat ekitaldi antolatzeke egiten duen lana; beraz, herritar denak animatzen ditut bazkide egitera, lan horretaz gozatzen jarrai dezagun.

### AGUSTIN ASTORKIA

64 urte

Euskara mespretxatua eta bigarren mailan zegoenez, gaztaroan euskara ikastea erabaki nuen. Deban, euskara bultzatzeko zenbait ekimenetan hartu dut parte; zinegotzi nintzanean kultur taldeekin, edo Zuhatzarekin 1998ko Euskal Jaia antolatzen... Sorreratik naiz Zuhatzako bazkide. Oso garrantzitsutat dut bere lana: euskara ardatz jartzen du herrian jarduera guztietan. Gainera, Euskal Jaia eta Korrika antolatzen ditu... Eta *Berriketan!* Lehenago pentsaezina litzateke horrelako aldizkaria, euskaraz, etxe guztietara iristea. Horregatik guztiarengatik Zuhatza behar-beharrezko ikusten dut herria, aurreko mendeetan bezala, euskaldun izan dadin.



### INMA ALBERDI

57 urte

Txikitik erdaraz ikasi nuen, eskola publikoan. Familia euskalduna nuela eta, batxilergoan zuzendariak ikastolakoekin jarri ninduen gelan eta hor idatzi nuen euskaraz lehenengoz. Orduan jabetu nintzen euskararen garrantzia. Herrian Zuhatzak euskararen alde egiten duen lana goraipatzekoa da. *Berriketan* aldizkariari esker herriko kontuak, pertsonak, taldeak... ezagutzen ditugu. Gainera, antolatzen dituzten ekimenek (Olentzero, Euskal Jaia, Kolore Anitz...) giroa alaitzen dute. Zuhatzari lagundu? Bai, noski!

### ALFON FERNANDEZ

46 urte

20 urte baino gehiago izango da *Berriketan* aldizkariaren lehenengo aleetan maketazio taldean parte hartu nuela, eta konturatu nintzen zer garrantzitsua den Zuhatza Euskara Elkartearen boluntario bezala lan egiten duen jendearen funtzioa, euskaraz bizi nahi duen jendea euskaraz bizi ahal izateko guneak eta aukerak sortzen dabiltzalako lanean. Niretzat garbi dago Zuhatza Euskara Elkarteak eragina duela herriko euskararen garapenean.



## SEXU-HEZIKETA #IZPIDE, TABUAK BAZTERTU NAHIAN

### Ikasleontzako tailerra Mendatan

Dagoeneko 20 urtez egin dira sexu-heziketari buruzko saioak Mendatan, eta aurten beste behin ere, apirilaren azken astean, hau da, apirilaren 26tik 30era bi orduko sexu-heziketa saioak izan zituzten hirugarren mailako ikasleek egunero.

COVID-19a dela eta, gela bat konfinatuta zegoen eta baita beste geletako hainbat ikasle ere; hala ere, bideo-deien bidez izan arren, klasean egotea lortu zuten, sexualitateari buruzko gauza gehiagorik jakiteko aukera hori ez galtzeko.

Helburu argia izan du tailer honek: informatzea. Izan ere, XXI. mendean oraindik ere tabu bat da gai hau eta normalean, ez da eskolan gauza hauetaz hitz egiten, ezta etxean ere.

Gai ezberdinak landu zituzten, tabu horiek apurtzeko ideiak aurkeztuz. Lehenengo egunean, sexualitateaz hitz egin zuten, eta zer den azaldu. Bigarren egunean, gozamenaren ruleta bat egin zuten, eta gozatzeko modu ezberdinak ezagutu zituzten. Hirugarrenean, masturbazioaz hitz egin zuten, eta lauga-



rrenean, berriz, masturbazioak dituen onurez. Ikasleek beraien galderen eta zalantzen erantzunak jasotzeko beta ere izan zuten.

### IRITZIA

#### GAIK NORMALIZATUTA EGON BEHARKO LUKE

Ez zait iruditzen sexu-heziketa eta sexu-harremani buruz hitz egitea normalizatuta dagoenik. Gai hauei buruz hitz egiterakoan lotsatiago bihurtzen gara eta zenbaitetan ez dugu informazio handiegirik izaten. Normalizatuta egon beharko luke gai honek eta informazio gehiago izan beharko genuke, gauza naturala baita. Gehienbat gazteek izan beharko lukete informazio gehiago, informazio ezaren ondorioz gertatzen baitira ezbehar gehienak.

Bestalde, bakoitzak askatasun propioa eduki behar duela iruditzen zait sexu-harremanak izateko orduan. Bakoitzaren esku dago norekin egin eta

nola; inork ezin gaitu behartu egin nahi ez dugun zerbait egitera. Arazoren bat izanez gero eta istripuren bat gertatuz gero, zer egin nahi dugun erabakitzeke eskubidea izan beharko genuke; edo hala iruditzen zait behintzat.

Bide horretan, ondo iruditzen zait eskolan sexualitateari buruzko tailerrak izatea. Zenbaitentzat beharrezkoa dela iruditzen zait. Kondoia behar bezala erabiltzen jakin beharko genuke, baita beste antisorgailuak ere. Horregatik azpimarratu nahi dut sexu-heziketaren inguruko tailerrak beharrezkoak direla, haietan asko ikasten baitugu.



#### Prentsa tailerra 2020-2021

Maren Aramburu, Ekaitz Aperribai, Ainhoa Loidi, Maddi Txurruka, Adur Aramburu, Unai Portero, Enara Oruesagasti, Julene Perez, Jon Etxeberria, Malen Formariz, Oier Becerra, Oinatz Urbieta, Josu Corrius, Xabi Arakistain eta Sara Osa.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzailea:



babesleak:





## NERABEEN PRIBATUTASUNA

Gaur egungo gazteak gero eta goizago hasten dira telefonoak erabiltzen. Esate baterako, jende askok jaunartzea egindakoan oparitzen die telefonoa euren seme-alabei. Horrek hainbat arrisku ekar ditzake.

Nire ustez, mugikorra emateko sasoirik egokiena, seigarren maila amaitutakoan, lehenengo DBHra igarotzeko uda izango litzateke. Izan ere, egiten dituzun gauzekiko kontzientzia handiagoa duzu orduan. Hala ere, argi izan behar duzu zure ekintzen arduraduna zu zeu zarela.

Bestalde, telefonoa izateak sare sozialak erabiltzeko aukera handia-

goa ematen du; Instagram, Twitter, Tik Tok... eta beste hainbat erabiltzeko. Bertara informazio pribatua igotzen dugu, hainbat argazki, eta abar. baina askotan ez gara konturatzten sare sozialetan jende asko dagoela eta edozelakoa, edozein informazio ateratzeko gai direla zu konturatu gabe. Horregatik, kontu handia izan behar dugu ematen dugun informazioarekin. Burutzen ditugun ekintzetan zentzuz jokatzen badugu, ordea, ez dugu arazo handirik izango.

Gurasoek seme-alabak hasieratik libre uztea iruditzen zait egokiena. Dena dela, zerbait gertatuz gero,



elkarrekin hitz egitea gomendatuko nuke eta ez telefonoa kendu eta begiratzea. Azken finean, giro txarra sortzen da horrela guraso eta seme-alaben artean, eta dena hitz eginda, berriz, errazago konpontzen dira gauzak.

## IRITZIA

### PRIBATUTASUNA GALZORIAN

Zergatik dugu dena konpartitzeko beharra? Zergatik igo duzu zure bazkariaren argazkia Instagramera? Zergatik idatzi duzu Twitterren zure lagunaren urtebetetzea dela? Besteen onarpena lortzeko.

Nire ustez, nerabeek ez dakite beraien pribatutasuna kudeatzen, gaur egun edozer igotzen dute beraien sare sozialetara nork ikus dezakeen kontuan izan gabe. Sare sozialek alde on eta txarrak dituzte, lagunekin hitz egin dezakezu, pertsona gehiago ezagutu, entretenu... Baina alde txar asko ere badituzte, inoiz ez dakizu zuk igotako argazki horrek non buka dezakeen, ezta nork ikusiko duen ere, zertarako erabiliko duten...

Gainera, gaur egunean igotzen duzun edozer kritikatu izango da, ez du axola ez bazaituzte ezagutzen, ez du axola zer gertatu den dakiten edo besteen sentimenduak urratuko dituzten.

Nire ustez ez da beharrezkoa 7 urteko umeei telefono bat edukitzea, zertarako behar dute? Ez dira kontziente eta xalotasunez igotzen dute edozein bideo, argazki, audio... horiek nolako eragina izango duten kontuan hartu gabe.

Pribatutasuna kudeatzen jakiteko gai honi buruz gehiago hitz egin beharko litzateke, eta umeei mugikorrek beranduago eman.

## DENBORA-PASAK

### EZAGUTZEN?

Jakingo al zenuke zein abestiren pasarteak diren ondorengoak? Eta taldea edo abeslaria?

1. "Zure keia eskuetan putzara batekin putz neregana etorriko da ta berriz izango gara zoriontsu".
2. "Dana emonbiyar yako maite den askatasunari".
3. "Eta min eman arte zure falta izan ez da musa hoberik bihotzen artean parkour egitean erori baina beti zutik erori".
4. "Ahaztutako atea azaltzen hasten dira euren bila goazenean. Ausardiaren hegoak astinduz hegan, haizeak laztantzen nau orain".

ERANTZUNAK:  
1. Lau teilatu - Iloiz  
2. Mendigoxallarena - Ken Zazpi / Antton Valverde  
3. Katedral bat - Berritxarrak  
4. Aukera berrak - En Tol Sarmiento

**MAIATZAK 21, OSTIRALA**

-20:30. **Antzerkia:** *"Panpina"* (Kamikaz Kolektiboa), Aldats pilotalekuan.

**MAIATZAK 22, LARUNBATA**

-20:30. **Antzerkia:** *"Antroan intro"* (Orratz Antzerki Taldea), Aldats pilotalekuan.

**MAIATZAK 23, IGANDEA**

-18:00. **Antzerkia:** *"35 Huts"* (Esti Curiel), Itziarko Burugorri Etxean.

**MAIATZAK 28, OSTIRALA**

-19:00. **Kale-antzerkia:** *"Mesede bat egitearren"* (Trapu Zaharra), Arakistain plazan.

**MAIATZAK 29, LARUNBATA**

-20:30. **Antzerkia:** *"Konpromisoa"* (Txalo Produkzioak), Aldats pilotalekuan.

**MAIATZAK 30, IGANDEA**

-12:30. **Antzerkia:** *"Kutxa baten istorioak"* (Trotamundos Konpainia), Aldats pilotalekuan.

**EKAINAK 4, OSTIRALA**

-18:30/19:00/19:30/20:00. **Mikroantzerkia:** *"Badator"* (Goaz Antzerki Taldea), Agirre jauregian.

**EKAINAK 5, LARUBATA**

-18:00/18:30. **Mikroantzerkia:** *"Badator"* (Goaz Antzerki Taldea), Itziarko Burugorri.

**EKAINAK 6, IGANDEA**

-17:30. **Kontzertua:** **Gozategi** (formatu akustikoan), zumardiko karpan.

**EKAINAK 10, OSTEGUNA**

-19:00. **Hitzaldia:** *"Reflexiones en torno al COVID-19"*, Juanjo Martinezen eskutik, zumardian.

**EKAINAK 11, OSTIRALA**

-19:00. **Liburu aurkezpena:** Jon Alonsoren *"Naparra. Kasu irekia"*, Itziarko Burugorri.

**EKAINAK 12, LARUNBATA**

-19:00. **Kontzertua:** **Skabidean eta Debrass Band**, zumardiko karpan.

**EKAINAK 17, OSTEGUNA**

-19:00. *"Death Cafe"* saioa Amaia Gozategiren eskutik, Itziarko Burugorri.

**EKAINAK 19, LARUNBATA**

-18:30. **Kontzertua:** **Brigade Loco eta No Limits**, zumardiko karpan.

**Debegesaren ikastaroak online**

-Maiatzaren 21ean (ostirala), 9:00etatik 10:00etara, *"Nola finantzatu zure negozioa"* ikastaroa eskainiko du online Naiara Lopez analista finantzarioak.

Maiatzaren 28an (ostirala), berriz, 9:00etatik 10:00etara, *"Forma juridikoa eta bete-behar fiskalak"* ikastaroa eskainiko du Juan Bidegainek (aholkulari fiskala eta kontablea). Doako saioak izango dira. Informazioa eta izen-ematea [www.debegesa.eus](http://www.debegesa.eus)-en.

**Pentsiodunen aldarrikapenak**

Maiatzaren 27an (osteguna), 18:00etan, pentsiodunen aldarrikapenen aldeko bizikletamartxa iritsiko da Debara, Mutriku aldeetik. Maiatzaren 28an, berriz, goizeko 9:00etan ibilbidea jarraituko du Zumaiarantz.

Bestetik, ekainaren 7an (astelehena) elkarretaratzea egingo da pentsio duinen alde, Foruen plazan, 12:00etan.



**ZAINTZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **maiatzak 21, 22, 23, 31, ekainak 1, 2, 3.**

Burgoa Zuazo: **ekainak 4, 5, 6, 14, 15, 16, 17.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Torbio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**

**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: maiatzak 29 eta ekainak 5

BURGOA ZUAZO: maiatzak 22, ekainak 12 eta 19

**9:30 - 13:00**



**Uzuri**  
optika audio  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN**



Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12

Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!



**943 191 383**

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)



Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | [www.janiretamaitane.com](http://www.janiretamaitane.com)

LIZ-ZK.: 3 **Taxi Alain Deba** WiFi

[www.taxideba.eus](http://www.taxideba.eus) **636 135 008**  
alain@taxideba.eus

**ieraenea**  
\*maite ditut nire/guro bazterrak\*

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
Telf: 943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

**k**  
**kutxabank**

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)  
Tlf: 685 703 843

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**A D**

**ASESORIA DEBA**  
Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Hlgiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

[asesoriadeba@asesoriadeba.com](mailto:asesoriadeba@asesoriadeba.com)  
[www.asesoriadeba.com](http://www.asesoriadeba.com)

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

**adats**

**ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA**  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00

**ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU**  
Behoko plaza 1 MUTRIKU  
T. 943 60 39 45

[www.facebook.com/adatsileak](https://www.facebook.com/adatsileak)  
[@adatsileak](https://www.instagram.com/adatsileak)

**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95 

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**sasoi**ko

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknioterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 [sasoi@hotmail.com](mailto:sasoi@hotmail.com)

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

# ATE IREKIAK

**Maiatzak 27**

9:00 - 19:00

## Erdi maila:

- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA
- MEKANIZAZIO TEKNIKARIA
- AROTZERIA ETA ALTZARIGINTZA

## Goi maila:

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA \*
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- GIZARTERATZEA
- PLATAFORMA ANITZETAKO APLIKAZIOEN GARAPENA **BERRIA!**

## Eskaintza partziala:

- DISEINUA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

Ziklo guztiak euskara hutsean

\* **ELEANITZA:** ziklo hauetan modulu batzuk **ingelesez** egiteko aukera.



# IZARRAITZ

Lanbide Heziketa

*Guztiona, guztiontzat!*



[www.izarraitz.eus](http://www.izarraitz.eus)

CIFP IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHII  
Altamira auzoa z/g 20720 Azkoitia (Gipuzkoa)  
Tel. 943 85 21 74 · bulegoa@izarraitz.eus



gaitzen. te  
maite  
dugun  
herri

2021. urtean  
Zuhatza Euskara Elkarteak  
bere bazkide kopurua  
bikoizten ez badu  
desagertu egingo da.

**Zure laguntza behar dugu.**

**egin zaitez zuhatzakide!**

Urte guztiko bazkide-tza 30 euroren truke

[www.labor.eus/Zuhatza\\_EginBazkide](http://www.labor.eus/Zuhatza_EginBazkide)

**Zuhatza** euskara  
elkartea